

## **1999ko UZTAILAren 24ko BILKURA BEREZIA**

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeita hemeretziko uztailaren hogeita lauean, goizeko hamaikak direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ana Ederra Irurzun, Antton Balerdi Garmendia, Nerea Altuna Zubeldia, Lurdes Altuna Arritegi, Lontxo Goikoetxeaundia Martinez; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Berezian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

### **1.- UDALA ERATZEKO ETA ALKATEA AUKERATZEKO OSOKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA**

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

### **2.- LIZARTZAKO UDALGINTZARAKO BARNE ARAUAK**

Jose Antonio Mintegi Arrate Jaunak hitza harturik, Lizartzako Udalaren Barne Funtzionamendurako, Euskal Herritarrok-ek prestatu duen Araudiaren berri eman du, eta literalki honela dio:

#### **LIZARTZAKO UDALGINTZARAKO BARNE ARAUAK**

#### **LIZARTZAKO UDAL BARNE FUNTZIONAMENDUAREN ERAKETARAKO ARAUAK**

#### **SARRERA**

Demokrazi hitza, aho guztietan, hau da, edonorrek darabilkien ahotsa dugu. Ahokatzea gauza bat da ordea, eta bere esanahi guztia edo baita ere zatia, praktikan jartzea, bestebat.

Lizartzako Euskal Herritarrok-ek, benetan errealitate bihurtu nahi du bere Udalgintzan, askotan eta askotan, hitz hutsean bakarrik geratzen den, esan,

dirudienez, errex hori. Demokrazizko bizitza, eta ez hitza, da beraz, gure herrian eta Udal ekintzetan sortu nahi duena.

Nahi hau gauzatzeko, ezarrita diguten legedi hestuen atalik zabalenak erabiliko ditugu, eta espiriturik zabalenarekin noski.

Horretarako ezinbestekoa da, denok elkarrekin funtzionamendu egoki bat eduki ahal izateko alegia, arau batzuk bideratzea.

Lizartzako Herri Batasunak burubide hauetan oinarritzen du aurkezten duen araudia:

- Herritar bakoitza, eta bertako erakunde herritar guztiak, izan behar lukete Udal bizitzaren eragile biziak.
- Herritarren eta erakunde herritarren parte hartzea, benetan zabala eta etekintsua izan dadin, Lan Batzorde eta Udalbatzarretan, maila eta sail guztietan parte hartu behar dute zalantzarik gabe. Udalbizitza egoki baten ardatza, Lan Batzorde eta Udalbatzar ireki eta herrikoi batetan dago. Beraz, hauek dira zutabe tinkoak.

Aurretik aipatutakoa kontutan izanik, eta espiritu horri jarraituz, Lizartzako Herri Batasunak, ondoko barne araudi hau aurkezten du, Udalbatzak aztertu, eztabaidatu eta onar dezan.

## **1. BATZARRAK**

- Alkate-Lehendakariak ohizko batzarrera hiru hilabeteetan behin gutxienik eta beharrezkoa iruditzen denean dei egingo du, aztergaien zerrenda 48 ordu aurretik adieraziz.
- Edozein zinegotziak, Alkateari aurrez adierazita, nahi dituen puntuak, aztergaien zerrendan sartu ahal izango ditu.

- Aztergaien zerrendan azaltzen ez diren puntuak, premiazkoak direla erabakiz gero, eztabaidatzea posible izango da.
- Udaletxean ordezkatura dauden taldeak, Osoko Batzar Berezirako deialdia eska dezaioke Alkateari. Honek, 72 ordu barru egin behar du deialdi hori. Oso-osoa premiazkoa izanez gero, bat batean egin ahal izango da deialdia.
- Bilkura guztiak, ohizkoak eta bereziak, publikoak (agerikoak) izango dira.
- Lizartzan bizi diren herrikide guztiek, bere iritzia eman ahal izango dute.
- Aztergaien zerrenda guztiak, iragarriak izango dira eta Batzarreko aktak ere bai.
- Hastapenez, printzipioz, Batzar Nagusian erabiliko diren gai guztiak aurrez, gaiari dagokion Lan-Batzordean eztabaidatuak izan behar dute. Baldintza hau betetzen ez duen gairik, ez da eguneko gai zerrendan sartuko.
- Osoko Bilkuretan, Lan-Batzordeetan eztabaidatzen eta erabakitzen diren gai guztiak aipatuko dira, beren erabakiak onartuaz edo baztertuaz.

## **2. LAN BATZORDEAK**

- Lizartzako Udaleko Lan-Batzordeek egingo dituzten bilera guztiak, irekiak izango dira, talde bakoitzak bileratako egunak iragarri behar dituelarik.
- Lan-Batzordeetara joaten diran guztiak, partaideak izan ala ez, beren eritziak adierazteko eskubidea izango dute.
- Indarrean sartzeko erabakia izanez gero, nahitaezkoa da, Ohizko Batzaratik pasatzea.
- Lan-Batzordetako ordezkaria izango da, Lantalde hortako eztabaidak zuzendu eta bultzaraziko dituen.

- Lan-Batzorde bakoitzeko ordezkaria, batzordeko partaideek aukeratuko dute.
- Lan-Batzordeetako erabakiak, Osoko Bilkuran onartuak izan beharko dute indarrean sartzeko, espreski agertzen ez diren salbuespenak ezik.

### **3.1. GIZARTE ONGIZATEA**

Batzorde honetako ardatza, GIZARTE LAGUNTZAILEA izango da.

Bere laguntzaile, nahi duen zinegotzi eta herritar izan daiteke.

### **3.2. KIROLAK ETA GAZTEDIA**

Kirol arloan sartzen diren zerbitzu guztiak, lehen osatutako taldearen ardurapean egongo dira.

Talde honetan, nahi duten zinegotzi eta herritar izan daiteke.

Urteko Udaleko Aurrekontua osatzerako, egin beharko dituzte urte barrurako beren eskakizunak, dituzten asmoen arabera.

Herriko gazteen arazo eta beharren ardura.

### **3.3. EKONOMIA ETA AURREKONTUEN NAGUSITZA**

#### OSAKETA

Udal-Lehendakaria, Gordailuzaina, Kontuhartzailea, Udalkideak eta Herritarrak.

#### ARDURAK

Ohizko Aurrekontuan izendatuak eta onartuak datozen gastuen onarpena eta ordainketa.

Ohizko Aurrekontuaren diru egitamua zaintzea.

Obra Zertifikapenen onarpena eta ordainketa.

Txostenen lanketa eta erizpideak burutzea.

### AZTERGAIAK

Ohizko Aurrekontuan onartutako obren azken likidapenaren gain txostena.

Aurrekontuen egoerari buruz, txostenen azterketa.

Izendapenik ez duten fakturen ohizko gastuen onarpena.

Zerga eta tasa berrien ezarketaren azterketa.

Zergalaritza-agintaraudi, itune edo kontzertu aldaketaren azterketa.

Ohizko Aurrekontuaren eraketa.

Kredito Kontratazioen espedienteaz azalpena.

Aurrekontuen aldaketaren espedienteak azaldu eta erizpena eman.

Udal Ondasunen salerosketarekiko burubideak ematea.

Osoko Bilkurarako txostenak lantzea.

### **3.4. HIRIGINTZA ETA ZERBITZUAK**

#### OSAKETA

Arkitektoa, Idazkaria, Alkatea, Udalkideak, Lanetako Ofiziala eta herritarrak.

#### HIRIGINTZA ARDURAK

Obra baimenak.

Udal obren kontrola eta bultzatzea.

Hirigintzari dagokionezko arau hauste zigorren azterketa.

Laguntzazko Arauen azterketa eta sakontzea.

Udal agintaraudien (ordenantzak) azterketa. Adibidez, Hirigintzari dagokionezko zergak.

Zerbitzu orokorren gestioa eta azterketa (Proiektuak, adjudikapenak, etabar).

Batzordearen erizpena Osoko Bilkurarentzat.

Obra Nagusien azterketa, nola etxebizitza, industrigintza, e.a.

Denda, taberna, komertzio berri irekitzearen azterketa.

### ZERBITZUTAKO ARDURAK

Iturri eta Uraren kontrola eta zaintza.

Herriguneko garbiketa guztiaren ardura. (Kale, Plaza, Lorategi e.a.)

Ixurbideak, kainuk garbi edukitzea.

Kale, Plaza, e.a. konponketa txikiak. Kaleko Argi Indarraren ardura.

Zakar Bilketa.

Hilerria.

Telebistaren repetidorea.

Herriguneko inguru giroa zaintzea.

Askotan, erabaki azkarra hartzea behartuta egongo denez, batzorde honek indarrean sartzeko erabakiak hartzeko ahalmena izango du.

Batzorde hontako ordezkariak, behar beharrezkoa izanez gero, bat bateko erabakia hartzeko ahalmena izango du, Udal Arkitektoarekin eta Alkatearekin hitzeginez gero.

Indarrean sartzeko erabakiak hartuz gero, Batzar Orokorrean agertu beharko dira.

### **3.5. KULTURA, EUSKARA, HEZKUNTZA, FESTAK**

#### OSAKETA

Zinegotziak, Herriko Eskola, Herriko Erakundeak eta Herritarrak.

#### AZTERGAIK

##### Kultura

Herriko dantzak bultzatzea.

Kultur ikastaroak antolatzea.

Hitzaldiak antolatzea.

Jaialdien antolaketa, herriko jaiak barnean direla.

Liburutegia.

Kultur Erakunde eta Proiektuei laguntzak.

Euskaltegia.

### Euskera

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen ardura.

Herrian Euskararen jarraipena egitea eta bultzatzea, horren bidez, Udala ez ezik, LIZARTZA osoa euskalduntzeko.

### Hezkuntza

Lizartzako Hezkuntzarekiko beharren azterketa sakona.

Eskolako Batzordearekin harreman zuzenak edukitzea, lehenengo puntua egoki landu ahal izateko.

Hezkuntzako Zentroen egoeraz arduratzea.

## **3.6. BASERRIGINTZA ETA UDAL-BASO/MENDI ZAINZA**

### OSAKETA

Zinegotziak eta herritarrak.

### AZTERGAIK-LANAK

Baserri eta Nekazaritzari dagokionezko hobekuntza eskarien azterketa.

Baserriko etxebizitza, ikuilu edo beste zenbait obra aztertzerako, Udal Arkitektoaren txosten teknikoa beharrezkoa izango da.

Baserri, baso eta mendietako bide eta pixten ardura.



Bide eta pixta hauen arduran, pribatuak eta herrikoak sartzen dira.

Bide eta pixta berrien irekiera aztertzerakoan, nola pribatuak ala herriarenak, Udal Arkitektoaren txostena beharrezkoa izango da.

Herriko baso eta mendien azterketa sakona egitea, Herri terrenoak ezagutzea eta ezagutuaraztea, eta hauek benetan zaintzea.

Landaketak eta egungo basoen hobekuntzak aztertzea.

Ingurugiroa zaintzea, arlo honi dagokion lurralde osoan.

Osoko Batzarrari informazio puntuala ematea.

Laguntzazko Arauen azterketa, Nekazaritza arloari dagokionean.

Aurkeztutako Araudiari inork ezer esatekorik baduen galdetu du Alkateak.

Inork ezer esan ez duenez, Araudia aho batez onartu da.

Horren arabera, Araudian gertu diren baldintzen arabera, Batzordeak osatu dira, eta honela geratu dira:

BATZORDEA

UDALKIDEA

GIZARTE ONGIZATEA

ANA EDERRA IRURZUN

KIROLAK ETA GAZTEDIA

XABIER BALERDI URDAMPILLETA

EKONOMIA ETA AURREKON-  
TUEN NAGUSITZA

JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE  
ANA EDERRA IRURZUN

HIRIGINTZA ETA ZERBI-

JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE

TZUAK	ANTTON BALERDI GARMENDIA
KULTURA, EUSKARA, HEZ- KUNTZA, FESTAK	NEREA ALTUNA ZUBELDIA LOURDES ALTUNA ARRITEGI XABIER BALERDI URDAMPILLETA
BASERRIGINTZA ETA UDAL- BASO/MENDI ZAINZA	LORENZO GOIKOETXEAUNDIA MARTINEZ

Batzordeak irekiak direnez, Batzordeko Osozko Partaide izan nahi duen herritarrentzat, aste bateko epea zabaltzea erabaki da, interesatuta dauden guztiak, izena eman dezaten.

**ALKATEORDEA, GORDAILUZAINA ETA ERAKUNDEETARAKO ORDEZKARIEN IZENDAPENAK**

Jose Antonio Mintegi Arrate Alkateak, hitza harturik dio:

ELOL.eko 21.2 artikulua ematen dizkidan Eskurantz, Eginkizun eta Funtzioen arabera, Alkateordea, Gordailuzaina eta Erakundeetarako Ordezkariek izendatzeko ahalmena dut.

Honenbestez, izendapenak, honela geratuko dira:

ALKATEORDEA	ANA EDERRA IRURZUN
GORDAILUZAINA	ANA EDERRA IRURZUN
UEMA	LOURDES ALTUNA ARRITEGI
TOLOSALDEA GARATZEN	JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA – JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE	
MENDI NEKAZARITZA	LORENZO GOIKOETXEAUNDIA MARTINEZ

UR KONTSORTZIOA      ANTTON BALERDI GARMENDIA

EUSKAL FONDOA      ANTTON BALERDI GARMENDIA

HILTEGI AMANKOMUNATUA – LORENZO GOIKOETXEAUNDIA MARTINEZ

Aipatutako Entitateetan inork parte hartzeko interesik izanez gero, izendapenak egitea posible dela dio Alkateak.

### **3.- EUSKAL PRESOEN HERRIRATZE ETA BERAIEIEN ESKUBIDEAK ERRESPETATZEAREN ALDEKO MOZIOA**

Alkateak, Euskal Presoen herriratze eta beraien eskubideak errespetatzearen aldeko mozioa aurkeztu du, eta honela dio:

Azken eguberrietatik gaur arte, euskal presoek herriratze eta beraien eskubideak errespetatzearen aldeko ekimen asko izan dira gure herrian eta aldi berean Euskal Herri osoan ere bai (Senideak-ek aurkezturiko mozio bati babes handia, Udaletxeen aurrean abenduaren 31an egin ziren kontzentrazio jendetsuak, urtarrilaren 9an Bilbon izan zen manifestaldi erraldoia, Gasteizko Parlamenduak eta Batzar Nagusiek eginiko aldarrikapen instituzionalak, e.a.). Ekimen hauek, Euskal gizartearen gehiengoak eskubide hauen alde duen iritzia nabarmen utzi dute behin eta berriz.

Nahiz eta hori hala izan, Madril eta Pariseko Gobernuak legez kanpoko egoera hau mantentzen dute, euskal presoek eta beraien senitartekoen sufrimendua areagotuz.

Hau guztiagatik, eta KOLDO ALAÑA ARRINDA euskal presoak, herri honetako biztanleek hautatu gisa aukeratu dutela kontutan izanik eta orain artean udal honek hartuak dituen erabakietan oinarriturik, Osoko Bilkura honi zera proposatzen zaio:

- 1.- Madrileko Gobernuari, KOLDO ALAÑA ARRINDA presoak Martuteneko kartzelan egon dadin duen eskubidea bete eta gehiago dispertsiorik ez aplikatutzeko esijitzea.
- 2.- Madril eta Pariseko Gobernuei euskal gizartearen aho batezko borondatea beteaz euskal presoak Euskal Herrian dauden kartzeletara ekartzeko beharrezko tramiteak egiten hasteko eskatzea.
- 3.- Udal honek, aurreko bi puntuetan onartua bete dadin eskatzeko beharrezkoak diren pausuak emango ditu.

Euskal presoen herriratze eta beraien eskubideak errespetatzearen aldeko mozioa, aho batez onartua izan da.

#### **4.- LEZINEA BASERRIAREN BERRIKUNTZARAKO OBRA BAIMENA**

Roke Arozena Goikoetxea Jaunak, Lezinea Baserriaren Berrikuntzarako aurkeztu duen obra baimen eskaera aurkezten da.

Espedienteari dagozkion eskabidea, egitasmoa eta Teknikariaren Txostena ikusirik, legeek zein hirigintzari buruzko arauak ezartzen dutenaren arabera, obra baimen hori ematea, aho batez erabaki da, baldintza hauekin:

Obra amaieran, IGOKA espedientearen tramitazioan ezarri daitezken neurri zuzentzaileak errespetatu beharko dira.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, eguerdiko hamaikat'erdiak direnean.